



Lana / La obra

Sator begietara ohitu gara; ikusi baino nahiago dugu begiratu. Mesanotxeko argia piztuta ilargia itzaltzeko ohitura dugu, errazago da-eta horrela norbere bidea. Poema hauen bidez, sator begiak patrikan gorde eta mesanotxeko argia itzalita beti, zetazko marasma haritik tiraka banatu ditut betileak eta begietan jantzi dut hurkoaren azala. Ikusi ditut pertsonak eta ertzak, hiriak eta esperantzak, xiringak eta lagunak. Poema hauen bidez *Lo zaudela zabaldu nahi dizkizut begiak* zurekin batera ikusten ikasteko. Finean, nahi edo ez nahi, satorrak ez du ikustea helburu; baina gu, zoritxarrez, ez gara sator.

*Gure balkoian bizi den pagoak
ez du basorik helburu,
eta hala ere,
hosto berriak hazten zaizkio udaberrietan.*

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak**
Egilea / Autor: **Mikel Etxaburu**
Saila / Colección: Poesia, 32
ISBN / EAN: 978-84-9109-146-2
Salneurria / Precio: 8 € (BEZ barne – IVA incluído)
Orri kopurua / N° páginas: 72
Formatua / Formato: 13 x 20,5 cm



Egilea / El autor

Mikel Etxaburu Osa (Ondarroa 1969). Euskal Filologian Doktorea da eta irakasle Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean. Literaturari dagokionez, beste bi poema liburu ditu argitaratuta: *Zu zara orain txoria* (Elkar, 2011) eta *Hodeiak zapatetan* (Susa, 2014).